



MENDAROKO
UDALA

2024KO URTARRILAREN 25EAN OSPATURIKO BATZAR OHIKOAREN AKTA

Bertaratutako Zinegotziak:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Enetz Ezenarro Arriola J. (EH BILDU)

ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:

Borja Rodriguez Barreras J. (EH BILDU)

Sonia Garcia Raposo A. (EH BILDU)

Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegui A. (EH BILDU)

Dorleta Lazarobaster Arakistain A. (EH BILDU)

Iñaki Arregui Uria J. (EAJ-PNV)

Nerea Isasi Bedayo A. (EAJ-PNV)

Amaia Urra Mardaraz A. (EAJ-PNV)

EZIN ETORRIA ADIERAZI ZUTEN:

Nuria Guerola Horrillo A. (EAJ-PNV)

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:

Korporaziokoa den Nerea Etxarri Ubeda
Anderea.

Mendaron eta Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeitalaugarreneko urtarrilaren 25ean zazpiak zirela, Udalbatza bildu da ..ohiko Osoko Bilkura egiteko.

Mahaiburu Korporazioko Alkate Lehendakaria Enetz Ezenarro Arriola izan da.

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46/2-c artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Ohiko Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkatea eta Idazkaria bertan daudela.

Eguneko gai zerrenda:

1. OLATZ BIZKARGUENAGAREN IZENDAPENA ZINEGOTZI MODUAN.
2. AURREKO SESIOAREN AKTAREN BORRADOREA ONARTZEA, HALABADA (2023.12.21)
3. -LANBIDEK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO ZERBITZUAK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN PROIEKTUAK EXEKUTATZEKO, ELGOIBARKO, SORALUZEKO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN EGITEN DEN GESTIOA DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA.-
4. KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO AITORTZEA.
5. MENDARO EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAN SARTZEKO MOZIOA.
6. OSTEGUNEKO BILERAK ASTEARTEAN IZATEKO PROPOSAMENA.
7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

ERREGU ETA GALDERAK.



MENDAROKO
UDALA

LENEHONGO PUNTUA. OLATZ BIZKARGUENAGAREN IZENDAPENA ZINEGOTZI MODUAN.- Osoko Bilkurak, 2024ko urtarrilaren 18ko Antolakuntza Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki du:

AKORDIOA

Udal honetako zinegotzi kargua hartzea onartzea:

Izen abizenak	NAN
Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegi	1537587X
Talde politikoa	EHBILDU

Honako hau alde z aurretik uko egin ondoren:

Izen abizenak	NAN
Javier Muñoz Moreno	15393511
Kargua	Zinegotzia
Uko egitearen data	2023/12/01
Talde politikoa	EHBILDU

Horretarako, eta legez ezarritako prozedura betez, alkateak Olatz Bizkarguenaga Andereari galdetu dio:

«Zure kontzientziagatik eta ohoreagatik zin egiten duzu edo agintzen duzu Mendaroko Udaleko zinegotzi-karguaren betebeharrak zintzoki beteko dituzuela Erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa gorde eta betearaziko duzuela, Estatuaren funtsezko arau gisa ?» (kargu edo funtzio publikoak hartzeko formula arautzen duen apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuaren 1. artikulua).

Jarraian, alkateak ongiatorria eman dio.

Zinegotzi kargua hartu ondoren, bilkuran Olatz Bizkarguenaga Anderea sartu da.

BIGARREN PUNTUA. AURREKO BATZARRAREN AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA. HALABADA.- Batzar honen deialdiari 2023.12.21 datako aurreko batzarreko aktaren zirriborroa lagundurik, Zinegotzi Jaun Andereei inolako behaketarik egin behar duten galdetzen zaie.



MENDAROKO
UDALA

Bat bera ere ez denez aurkezten Udalbatzak ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

2023.12.21 datako Batzarraren Aktaren Zirriborroa onartu, eta honen arabera Aktara jasotzera jo.

HIRUGARREN PUNTUA. LANBIDEK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO ZERBITZUAK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN PROIEKTUAK EXEKUTATZEKO, ELGOIBARKO, SORALUZEKO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN EGITEN DEN GESTIOA DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA.- 2023ko maiatzaren 24ko EHAAn, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiak 2023ko maiatzaren 18an eman zuen Ebazpena argitaratu zen. Horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2023ko ekitaldiko laguntzen deialdia.

Kontuan izanda Eskualdeko Enplegu Planen deialdi horri jarraiki, Debabarreneko lurralde eremuko partaide gisa ageri direnak ondorengo udalak direla: Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Soraluze-Placencia de las Armas.

Hori dela eta, Laguntza eskaera aurkeztu ahal izateko, bada, Debabarreneko eskualdean sartuta dauden gainerako udalen ordezkari Elgoibarko Alkatearen esku uzteko akordioa hartu zen DEBEGESAREN, Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarte, SAREN, Administrazio Kontseiluan, 2012ko azaroaren 29an (158 zenbakidun akta).

Aztertuta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak 2023ko irailaren 25an eman zuen Ebazpenean, Elgoibarko Udalarentzat 194.205,00€ gehieneko diru-laguntza ematea onartu zela, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko 1. motatako proiektuak, Eranskinean jasota daudenak, egiteko.

Horregatik guztiagatik Mendaroko Udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

Lanbidek, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko zerbitzuak, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko diruz laguntzen dituen proiektuak exekutatzeko, Elgoibarko, Soraluze, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko udalen artean egiten den gestioa Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena ONARTZEA.

LAUGARREN PUNTUA. KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO AITORTZEA.- Kontuan hartu da ADAKI enpresak 2021eko ekitaldian Whatsapp bidezko komunikazioa zabaltzeko kanpainaren diseinua eta antolaketari dagokion lanak gauzatu zituela. Lan horiek egiteagatik eskuratutako ordainketa egiteko dagoen obligazio ekonomikoa 2.618,10 eurokoa izan zen.

Kontuan izanda egiaztatuta geratu dela ordaintzeke dagoen betebeharr ekonomikoa bidegabe hartu dela, Kontu Auzitegiak bidegabe eskuratutako betebeharren sailkapenean jasotako kasuren bat



MENDAROKO
UDALA

gertatu delako. Izan ere, kontratu txikiei dagokion prozedurarik ez zen bideratu eta ondorioz, ez dago 2021eko ekitaldian kreditu hori baimentzen duen onarpenik.

Egindako prestazioa eta espediente honen xede den administrazio-egintzak duen akatsa kontuan hartuta, hau da, atzemandako akatsa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 37. artikuluan kokatu behar dela. Artikulu horrek espresuki debekatzen du hitzezko kontratazioa, larrialdi-kasuetan izan ezik, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 e) artikuluari dagokionez. Artikulu horren arabera, deuseztasun-arrazoitzat hartzen dira lege ezarritako prozedura edo kide anitzeko organoen borondatea eratzeko funtsezko arauak jasotzen dituzten arauak erabat alde batera utzita emandako egintzak.

Legez ezarritako tramitazioa egin ondoren, Osoko Bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 60.2 artikulua Osoko Bilkurari emandako eskumenaren arabera, eta Mendaroko Udalbatzak, ahobatez,:

AKORDIOA

LEHENENGOA. 2021eko ekitaldiari dagokion prestazioaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoen likidazioa onartzea. Zenbateko horren likidazioa 2.618,10 eurokoa da, uste baita interes publikoko arrazoi batzuek gomendatzen dutela ofiziozko berrikuspenaren bidera ez jotzea, horrek kalte larriak eragin diezazkiekeelako administratuei eta fede onez jarduten duen hirugarrenari.

Gainera, Kontuan izanda idazkari- kontuhartzailearen txostenean dioena erabakia arrazoi hauetan oinarritzen da:

Alde batetik, prestazioa eginda dago: Agerikoa da Udaleko webgunean whatsapp bidezko komunikazioa ezarrita dagoela.

Bestetik, prestazioa horien balorazio ekonomikoa ez da handia: Kontratu xiki bati dagokion prozedura izapidetu beharko litzateke.

Gainera, kontuan izanda egintza berrikustearen emaitza Administrazioaren ondare-erantzukizunaren ondoriozko kalte-galeren ordainaren bidera joz gauzatuko litzatekeela, haren alde bidegabeki aberastu delako edo bere kargura duen betebeharra ez duelako bete.

Beraz, prozesuaren ekonomiari lotutako arrazoiak direla eta, kasu honetan ez da egokia izango berrikuspena eskatzea, kalte-ordain horien zenbatekoa proposatzen dena baino handiagoa baita.

BIGARRENA. Honako kreditu hauen judizioz kanpoko aitortpena onartzea: Adaki enpresaren F211020 zenbakidun faktura 2021 ekitaldiari dagozkionak.

HIRUGARRENA. 2024 ekitaldiko aurrekontuaren kargura, 2.618,10 euro aplikatzea, 0100.226.03.920.00.2024 aurrekontu-aplikazioaren kargura.

BOSTGARREN PUNTUA. MENDARO EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAN SARTZEKO MOZIOA.- Mendarok aparteko aberastasun karstikoa eta aintzat hartzea eta babestea merezi duten formazio eta elementu geologikoen aniztasun handia du, lurpeko barrunbe ugari eta Debabarreneko biztanleriaren zati handi bat hornitzen duen akuiferoa nabarmenduz horien artean.

Azpimarragarria da gainera gure herrian aurkitu den eta aurkitzen ari den aberastasun arkeologikoa, hauen artean, oraingo, Aldatxarren, Aizkoltxo, Agarre, Aizbeltz, Etxeberri, Kurpittegi, Mortzelai, Pagandai etab. Nabarmentzen direlarik.



MENDAROKO
UDALA

Ikuspegi etnografiko eta historiko batetik begiratuta ere ukaezineko aberastasuna dauka gure herriak; hasi lehenbiziko garaietako burdinoletatik eta gaur egungo bizimoduari lotutakoetara.

Kontsiderazio hauek bitarteko, gure herria Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzeak aukera desberdinak irekiko lizkigukeela, besteak beste:

- gure ondare geologikoa, arkeologikoa, etnografikoa eta historikoa kontserbatzeko eta sustatzeko;
- gure eskualdean turismo iraunkorra eta ingurumen-hezkuntza sustatzeko;
- izendapen horrek onura ekonomiko, kultural eta hezitzaileak ekarriko dizkiela Mendaroko biztanleei, gure geologiari, historiari eta arkeologiari buruzko garapen- eta ezagutza-aukera berriak sortuz.

Orain arte esandakoak kontuan hartuta mozio hau aurkezten da gure udalerrria Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzea eskatzeko, izendapen horrek gure herriari emango liokeen garrantzia eta balioa aitortuz. Beraz, Mendaroko Udalaren Osoko Bilkurari honako erabaki hauek onartzea proposatzen zaio:

1. Mendaroko Udalak formalki eskatuko du udalerrri hori Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzeko, eta eskaera honen aldeko argudioak aurkeztuko dizkie dagokien agintariei.
2. Mendaroko Udalak aktiboki lagunduko ditu Geoparkean sartzeko ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak.

Ondorioz, Udalbatza honi aho bateko babes eskatzen diogu mozio hori babesteko, Mendaro Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzearen balioa aitortuz, gure ondarea zaintzeko eta zabaltzeko urrats esanguratsu gisa.

Mozioa irakurrita, Iñaki Arregi jaunak galdetzen du ea zergatik Mozio figura erabili izan den akordioa hartzeko. Alkate jaunak erantzuten dio EHBILDUK eskakizun moduan planteatu nahi izan duela, instituzionalki indar gehiago izan zezan.

Bozketa egin ondoren mozioa onartzen da EHBILDUren 5 aldeko botuekin eta EAJ ren 3 abstentzio botuekin.

SEIGARREN PUNTUA. OSTEGUNEKO BILERAK ASTEARTEAN IZATEKO PROPOSAMENA.-

Ahobatez onartzen da osteguneko Batzordeak eta Udalbatzarrak astearteetan izateko proposamena.

ZAZPIGARREN PUNTUA. ALKATETZAREN EBAZPENAK.- 2568/1986 Dekretu Errealeko 42 artikulua araberak, azkeneko udalbatzatik gaur egunerarte Alkatetza honek emandako Ebazpenen berri ematen da: 297/2023 zbketik 332/2023.zbkira eta 1/2024 zbkitik 5/2024 zbkira.

297/2023: EELZ azaroa 2023 onuradunen aportazioa. 16 erabiltzaile: 1308,42 €.

298/2023: GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. G.G.B. 225,84 €

299/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. M.G.L. 1.141,24 €



MENDAROKO
UDALA

- 300/2023** GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. C.F.EDC.. 943,26 €
301/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. G.M.N.. 103,33 €
302/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. G.C.S... 196,00 €
303/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. N.S.Y.... 650,48 €
304/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. M.M.M.... 821,85 €
305/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. P.M.A.. 135,71 €
306/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. M.X.LM... 450,00 €
307/2023 Kreditu aldaketa transferentzia bidezkoa
308/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. A.Z.MA... 1.154,42 €
309/2023 Eguranga S.L ri 1500 euroko abal itzulketa
310/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp. H.h.... Ez ematea
311/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp T.M.V 1.037,45€
312/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp g.b.ze. 541,3€
313/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp Z.U.ME. 1.120,42 €
314/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp H.B.S. 750,00 €
315/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp Z.M.G 2025,00 €
316/2023 GLL Epealdia: 4. Hiruhila Esp Z.G.S 940,71 €
317/2023 Adinekoentzako 3 ostatuen gastuen likidazioa
318/2023 Obrak legeztatze eskaera
319/2023 Katubeltz dirulaguntzaren zuriketa
320/2023 Kontxi Uraini taxi baimena aldatzea
321/2023 Jubilatuen dirulaguntzaren zuriketa
322/2023 MPT pilotaren dirulaguntzaren zuriketa
323/2023 Trinidad 7 Jabekideei dirulaguntza ematea
324/2023 Trinidad 7 Jabekideei dirulaguntza ukatzea fatxada berritzeagatik
325/2023 Andoneikua 14 jabekideei dirulaguntza ematea
326/2023 Mendarozabal 13 jabekideei dirulaguntza ematea
327/2023 Mainuzka 3ko jabekideei dirulaguntza ematea fatxada berritzeagatik
328/2023 Mainuzka 5ko jabekideei dirulaguntza ematea fatxada berritzeagatik
329/2023 Mainuzka 51eko jabekideei dirulaguntza ematea fatxada berritzeagatik
330/2023 Garagaztza33 ko jabekideei dirulaguntza ukatzea
331/2023 Abenduko fakturen erlazioa, 17. erlazioa, 280.267,82 €
332/2023 G.F.-ri dirulaguntza ematea.
- 1/2024 zkia.:** Udalaguntza eskatzea HH1 HH2 zoruaren aldaketa egiteko
2/2024 zkia: Udalaguntza eskatzea 3. Solairuan toloak jartzeko
3/2024 zkia: EELZ abendua 2023, 15 erabiltzaileen aportazioa. 1.193,22 €.
4/2024 zkia: Kultur Etxearen erabilera 2024 urtarrila-ekaina, 3 erabiltzaile = 3.048,00 €
5/2024 zkia: Abalaren itzulketa LIMPEDUR, S.L. ri.

ERREGU ETA GALDERAK.-

Aztertzeko gai gehiagorik ez daudenez, Alkate-Lehendakariak 19:15etan bilkura altxatzen du. Guzti honen Akta jasotzen delarik, nik Idazkari-Kontuhartzaile moduan, Ziurtatzen dut.

O. I.,
ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA